

TRANTSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA



A•22 Badaiako eta Arratoko mendilerroak

Badaiko eta Arratoko mendilerroak paisaiaren eta geografaren aldetik funtsezko erreferentziak dira Zuiako haran, Kuartango, eta Arabako lautadarentzat; izan ere, bien artean kokatuta dago, alderantzikatutako "L" baten forma hartuz. Techako haizpitarteko pasabide natural izugarriak banatzen ditu bi formazioak.

Badaiko mendilerroaren goialdea historiaurretik toki horietan bazkatzen den abere—azienda ugariak modelatutako larre zabalez osaturiko goi—ordoki bat da. Mendilerroaren mendi—hegalak beherantz doaz erliebe gogorak eratu, eta baso itxiek estalita. Baso hauek funtsean artadiak dira, baina laiotzetan badira erkameztiz eta pagadiz osatutako eremu zabalak ere. Floraren eta faunaren aldetik aberastasun handiena duen enklabea Techako haizpitartean dago, Bayas ibaiaren pasabidean; izan ere, hango malkar eta haitzetan arrain, anfibio eta uretako eta haitzetako hegaztien komunitate anizkuna dago.



A•23 Pradoko sakana

Pradoko erreka hondetutako sakan estu hau Toloño—Kantabriako mendilerroaren ingurutako mendietan dago.

Mendi—hegaletako landaredia jatorrizkoa bezala kontserbatzen da ia, pagadiz eta erkameztiz osatutako hedadura zabalekin.

Toki eder hau oso interesgarria da, gainera, historiaren eta ondarearen aldetik: sakanaren sarrerako terraza arrokatsuetan kobazulo artifizialen multzo paregabe bat kontserbatzen da. Leizeak inguru horretako biztanleek egin zituzten Erdi Aroan (V—VI. mendeak), etxebizitza edo gurtza—toki gisa erabiltzeko. Batzuetan, garai hartako hilobi antropomorfo batzuk gordetzen dira eta kobazulo handiengan "Virgen de la Peña" deituriko basiliza, ustez Euskal Herriko kristau—eliza zaharrena, kokatuta dago.

A•24 Gasteizko Mendebaldeko mendiak

Eremu honek Gasteizko mendien mendebaldeko alderdia hartzen du barnean. Altuera ertaineko mendi—kate hau Arabako lurraldearen erdian dago eta iparraldeko haize hezeek lurraldea zeharkatzean aurkitzen duten bigarren oztopoa dira. Horrek landarediaren antolaketa asimetrikoa izatea eragiten du: iparraldera begira dauden mendi—

hegalak hezeagoak dira, eta bertan nagusi dira erkameta eta haritza; hegoaldeko mendi—mazelan, aldiz, artadiak nagusitzen dira. Antolaketa honek eragina du inguruko faunaren banaketan eta eraketan, Mediterraneoako eta Atlantikoko espezieak elkarrekin bizitzea ahalbidetzen baitu, eta horrela faunaren dibertsitatea areagotzen.

Hiriburua hurbil dagoen arren eta ingurumenak intentsitate aldakorreko eraginak jasaten dituen arren, enklabe honetako baso—eremu zabalak eta inguruneak ondo kontserbatu dira. Ekologiaren aldetik bereziki interesgarriak dira apo pintatu iberiarra eta antzeko espezieen bizitoki diren Zaldiaran mendiko hezegune eta luperia txikiak.